

Estatutoa

Deia, 1977-06-24.

Estatutoa, izan dugu bat; honen bidez lortu genduen euskaldunok lehenengo Eusko Jaurlaritzza.

Egia da, guda garaian presaka samar emana eta hartua izan zela, baina herri bezala osatu gaituen egun famatuen artean garrantzitsuena gertatu da: hemendik datorkigu ikurrinaren eta hizkuntzaren ofizialtasuna; hemendik, ofizialki izan dugun hertzaina eta harmada bakarra, eta honez gainera beste prezedente asko: heziera mailan Unibertsitatea.

Baina laster galdu genuen Estatuto harek eman zigun burujabetzea. Orain berriz hasiak gara hontarako lanean; eta hauteskunde hoien ondoren, itxaropentsuago oraindik.

Orain, badirudi gurearen antzeko Estatuto bat Espainia'ko herri eta eskualde guztiek ere nahi dutela. Baina gauza bat da moda, bestea deskonzentrazio eta deszentralizazioaren beharra eta eskubidea, eta oso beste bat, ordea. Estatuto politiko baten arrazoibidea. Honetarako, beste tituloak ateratzeko bezala, behar dira, aurretik azterketa bidez horretarako eskubideak eta gaitasuna erakutsi. Gure Fueroak izan ziren Espainia-ko estatuan gehien iraun zutenak: Catalunya-koak baino gizaldi eta laurden gehiago; gero, guda karlista izugarriak gure lurretan eta gure gizonekin egin ziren nabarmenki, eta azken hontako eta oraindik amaitu gabeko erresistentzia hau ere munduak badaki non eta noren bizkar joan den.

Hau dena ez da kasualitate bat izan, frutu mikatz-gogor bat baizik. Gero, hauteskunde bideak.

Orain dela berrogei urtekoetan erakutsi zuen herriak zer nahi zuen, eta oraingo hoiek nahiko kutsatuak izan badira ere, Gipuzkoa-Bizkaian %91ek Autonomiaren alde dauden taldeei eman diete botoa, eta Arabakoa (%60,97) eta Nafarroa (%61,91) ahulagoa izan bada ere, erakutsi dute bere asmoa.

Oraingoan Espainia-ko gobernuak joandekoak baino zuzenago jokatzen ez badu, erailduko dute pake bideak egiteko aukerarik onena.

Gainera, nahita-nahiezkoa da

Oraingoan ez da berjabetasunaren alde eskubidea eta meritoa ditugula bakarrik. Oraingoan, gainerako herri eta Europa beraren etorkizunari begira jarrita ere, ez dago hemen beste irtenbiderik. Gaurko herriak asko hazi dira, eta gaizki hazi, eta har-emanak asko zaildu.

Lehen zentro batetik egiten ziren jauntxokeria eta zapalkuntza gero eta erantzungarriagoak dira gaur. Orain, justizia egiteko, administrazio bide batzuk

aipatzen dira: deskonzentrazioa eta deszentralizazioa. Deskonzentrazioa, bertako norbaitekin zentroa agintzen jarraitzeko bidea da: deszentralizazioan, berriz, lekukoari bere gisa administratu dedin jartzen zaio bidea. Espainia-ko erregio gehienak bi bide hoietako bat nahikoa bezala onartuko dute. Aitzitik, Catalunya eta Euzkadi-ren kasuan eskubide politikoak jokoan daudenez, Estatuto politiko baten bidez sortu behar zaizkie mekanismo hoiek.

Gainera, hau ez da Espainia-ren neurrian bakarrik behar.

Europa osatzen ari den garai hontan, argi da herrialde bidez artikulatuko dela errazen: batetik, Estatu mailan beren artean kontradikzio gehiegi dituztelako, eta, bestetik, herrialdeak inori beldurtzeko indarrak ez dutenez, eta modulo bezala molderrazagoak izan eta bideak egokiagotzen dituelako ere.

Nola osatu Euzkadi

Hauteskunde kanpaina egun hoietan irakurri dut don Manuel Irujo-k aipatutako Euzkadi konfederalaren formula.

Hau ezaguna da gure artean; gure sustrai politikoetan dago; baina norbaitek esan behar zuen berriz. Irujo-k napparren aurreritzi bati bere aurrea hartu nahi zion, hain zuzen.

Ezaguna da Euskal Herriak, sei eskualdeak, Herri bat osatzen dutela. Lehen aipatu bezala, Fueroak direla, defendatzeko egin diren gudak direla, beti elkarrekin aurkitzen ditugu historian zehar. Baina, herritasun hori nabarmena bada ere, sei eskualdeek badute bakoitzak berea duen nortasunaren kontzientzia. Eta, oraindik gehiago: ez dute galdu nahi. hala, oraingoan Ego Euzkadi lauez ari bagara ere, seiak elkartzerakoan, bere erakundeak eta askatasuna gordetzekotan izango dira.

Suiza-koaren gisa, gurea ere konfederazio bat izango da. Hontarako, elkarrekin askatasunean Herri bat osatzeko, behar da, hontaz gainera, noski, borondate politiko bat erakutsi.

Hau behar dugu gure artean landu.

Aldeko arrazoiak asko dira:

1. Ekonomi aldetik, ez du gure herriak beste biderik: Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, ordena hontan bertan, dira Espainia estatuko hiru probintziarik txikienak; Nafarroa, Espainiako probintziak batez-besteko duten hainbat zabalera badu. Lauek, erregio ekonomiko baten neurri egoki bat osatzen dute. Bestalde, industrializatuta dauden Gipuzkoa eta Bizkaiak badute lan egiteko behar den hainbat diru, eta Araba eta Nafarroak, behar diren lurak.

2. Hirigintzari begira jartzen bagara, berriz, Gipuzkoak eta Bizkaiak egin dituzte kalterik haundienak, eta baita Fueroen babesik izan ez dutelako ere; orain, demokrazi bideak irekitzen direnean, aukera izango dugu herri oso bezala plan orokor bat egin eta hemendik aurrerakoak zuzentzekoak jartzeko. Hala, eremuak jenderatuko dira, eta itotzeak lasaituko.

Laburdi eta Zuberoaz, berdin esan genezake, noski. Bada hemen, nik uste, arrazoi franko gure herriak politikoki orain berez egin behar duena egiteko eragingarri.

Ez dugu, gainera, beste biderik.

Eta hau da, behar bada, gure itxaropenik haundiena.